

## Uraren kutsadurari buruz sentsibilizatzen

**AMVISA eta Egibide elkarlanean, gazteekin uraren balioari eta sortzen ari den kutsadurari buruzko tailerrak egiteko.**

Martxoaren 22ko astean, Uraren Mundu Egunean, ingurumen hezkuntzako lehen tailerrak eman ziren, DBHko 2. zikloari zuzendutakoak, bereziki uraren kutsaduraren dimentsio soziala eta etxekoa ardatz hartuta. "Laborategi bat zure komunean" izenburupean, egunero erabiltzen ditugun substantzia kimikoen kantitateari eta horiek ingurunean duten eraginari buruzko kontzientzia helarazi nahi izan die tailerrak ikasleei. Horretarako, edozein komunetan ohikoak diren kosmetika eta higiene pertsonaleko produktueta substantzia horiek ezagutu eta identifikatzeko erronka planteatu da, eta, aldi berean, isurketen ondorengo tratamenduan eta ingurunean duten inpaktuan substantzia horiek desagerraztearen konplexutasuna ikusi da.

Ondorengo tailerretan batxilergoko ikasleentzako erronkak landuko dira, eta haiekin

"**Garbiketaren kimika**" landuko da, eta prestakuntza zikloetako ikasleei "**Kontzentratu zaitez: dosi perfektua**" tailerra emango diete. Lehenaren helburua da **norberaren higienarako eta etxeko garbiketarako produktuen konposizio kimikoa deszifratzen** ikastea da, eta produktu mota bakoitzaren elementuak eta substantziak ezagutzea eta erlazioztatzea, osagaien zerrendatik abiatuta. Finean, produktu horien erabilerak eta horien konposizioak ur zikinen arazketan eta ingurune hartzailean nola eragiten duten deskubritu eta aztertzea da xedea.

Bigarrenari dagokionez, **produktuen dosifikazioak eta erabilera egokiak substantzia kimikoek uretan duten eragina minimizatzeko duten garrantzia** aztertuko da tailerrean, eta herritarrek arazo horretaz hobeto jabetzeko irtenbideak nola aurkitu ere landuko da.



Jardueren diseinua curriculumaren edukietara egokitu da, erronkaren eta esperimentazioaren bidez eguneroko zientziaren zeregina indartzeko. Arloko profesionalak online ematen dituzte, Egibideko irakasleekin lankidetzan.

## Urik gabe, ez osasunik ez eskubiderik



Hori izan da Udaleko Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak eta AMVISAK aurten Uraren Mundu Eguna aldarrikatzeko aukeratu duten mezua, zeinean NBEK uraren balioaz hausnartzeko gonbita egin baitugu. Izan ere, munduko biztanleen herenek oraindik ez dute edateko urik, ezta eskuak garbitzeko aukerarik ere.

Edateko ura eta saneamendua lortzeko oinarritzko eskubidea bermatzen laguntzeko, AMVISAK Euskal Fondoak eta tokiko GGKE-ek gauzaturako **lankidetzaren proiektuak** babesten jarraitzen du. Hauek dira berrienak eta gaur egun gauzatze fasean daudenak:

- "**Ata ibaiaren goiko aldean hiru bidexkatarako akueduktu komunitarioko sistema eraikitzea**", Planadasen (Kolonia). 300 onuradun ditu, Kolonia-Euskadi Elkarteak da egilea, eta 125.000,00 euroko dirulaguntza dauka.
- "**H2O-Chiara: ura eta saneamendua landa eremuko hiru herritan**" Ayacucho (Peru). 443 onuradun ditu, Arabako Medicus Mundik gauzatua, 84.790,20 euroko dirulaguntzarekin.
- "**Boliviako Kajchiri saneamendurako giza eskubidea gauzatzea komunitateko kideentzat**", 278 onuradunekin, Lankidetzarako Ingeniaritza elkarteak gauzatua, 50.000,00 euroko dirulaguntzarekin.
- "**Edateko ur eta saneamendurako giza eskubidea, Herion (Ginea)**". 3.332 onuradun Nazioarteko Elkartasuna elkarteak gauzaturik, AMVISAREN 15.209,80 euroko dirulaguntzarekin eta Udalaren 44.399,52 euroko dirulaguntzarekin.



## SARS-CoV-2 ur zikinetan

Krispiñako UZAK jasotzen dituen hiriko ur zikinetan SARS CoV-2aren presentzia eta bilakaera aztertzen jarraitzen du, Europar Batzordearen gomendioekin bat etorritik. Helburua da pandemiaren intzidentziaren gorabeherak aurreikustea eta osasun agintariei abisu ematea birusaren presentziaren gorakada nabarmenen aurrean, herritarren artean kasuak ugaritu direla egiaztatu aurretik.

**VAT-ar proiektuak (MITECO)** herritarren eskura jartzen ditu emaitzak, Ministerioaren webgunean, [www.miteco.gob.es](http://www.miteco.gob.es) (Uraren atala).

**URBEHA Proiektuak (URA)** aurrekoa osatzen du EAeko beste UZA batzuetan, eta emaitzak URAREN webgunean jartzen ditu: [www.uragentzia.euskadi.eus](http://www.uragentzia.euskadi.eus).

## IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu.

Hauxe da helbidea:

[info@amvisa-futura.org](mailto:info@amvisa-futura.org)

*Gogoratu Aldatu faktura elektronikora eta paper kontsumoa murriztuko duzu!*



## Sensibilizando frente a la contaminación del agua

**AMVISA y Egibide colaboran para realizar talleres con jóvenes sobre el valor del agua y la contaminación emergente.**

Durante la semana del 22 de marzo, Día Mundial del Agua, se impartieron los primeros talleres de educación ambiental dirigidos al 2º ciclo de ESO, centrados específicamente en la dimensión social y doméstica de la contaminación del agua. Bajo el título **“Un laboratorio en tu baño”**, el taller ha pretendido transmitir al alumnado una **conciencia acerca de la cantidad de sustancias químicas que utilizamos a diario y su impacto en el medio**. Para ello, se ha planteado el reto de conocer e identificar dichas sustancias en productos de cosmética e higiene personal habituales en cualquier baño, descubriendo al mismo tiempo la complejidad de eliminarlas en el tratamiento posterior de los vertidos y su impacto en el medio.

En posteriores talleres se abordarán retos enfocados al público estudiante de bachillerato, con

quien se trabajará **“La química de la limpieza”**, y al alumnado de ciclos formativos, a quien se dirige el taller **“Concéntrate: la dosis perfecta”**. El objetivo del primero es aprender a **descifrar la composición química de los productos de higiene personal y productos de limpieza domésticos**, y conocer y asociar elementos y sustancias en cada tipo de productos, partiendo del listado de ingredientes. En último término, se trata de descubrir y analizar si el uso de estos productos y su composición afectan a la depuración de las aguas residuales y su influencia en el medio receptor.

En el segundo caso, el taller versará sobre la **importancia de la dosificación y el uso correcto de los productos para minimizar el impacto de las sustancias químicas sobre el agua** y cómo encontrar soluciones para que la ciudadanía sea más consciente de este problema.



El diseño de las actividades se ha adaptado a los contenidos curriculares, potenciando el papel de la ciencia cotidiana a través del reto y la experimentación. Se imparten on-line por profesionales de la materia, en colaboración con el profesorado de Egibide.

## Sin agua, ni salud ni derechos



Este ha sido el mensaje elegido por el Servicio de Cooperación al Desarrollo del Ayuntamiento y AMVISA para celebrar este año el Día Mundial del Agua, en el que la ONU nos ha invitado a reflexionar sobre el valor del agua. Y es que todavía un tercio de la población mundial no tiene acceso al agua potable ni al lavado de manos.

Para contribuir a garantizar el derecho fundamental del acceso al agua potable y el saneamiento, AMVISA continúa apoyando **proyectos de Cooperación** ejecutados por Euskal Fondoa y ONGD locales. Los más recientes y actualmente en fase de ejecución son:

- **“Construcción del sistema de acueducto comunitario para tres veredas en la parte alta del río Atá” en Planadas (Colombia)**, con 300 personas beneficiarias, ejecutado por Asociación Colombia-Euskadi y subvención de 125.000,00 €.
- **“H2O-Chiara: agua y saneamiento en tres localidades rurales” en Ayacucho (Perú)**, con 443 personas beneficiarias, ejecutado por Medicus Mundi Álava y subvención de 84.790,20 €.
- **“Ejercicio del derecho humano al saneamiento de las personas de la comunidad de Kajchiri (Bolivia)”**, con 278 personas beneficiarias, ejecutado por Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako Ingeniaritza y subvención de 50.000,00 €.
- **“Derecho humano al agua potable y el saneamiento en Herico (Guinea)”**, con 3.332 personas beneficiarias, ejecutado por Nazioarteko Elkartasuna/Solidaridad Internacional y subvención de 15.209,80 € de AMVISA y 44.399,52 € del Ayuntamiento.



## SARS-CoV-2 en aguas residuales

Continúa el estudio de presencia y evolución del SARS CoV-2 en las aguas residuales urbanas que recibe la EDAR de Crispijana, en línea con las recomendaciones de la Comisión Europea. Su objetivo es poder prever las fluctuaciones de la incidencia de la pandemia y poner sobre aviso a las autoridades sanitarias ante incrementos significativos de la presencia del virus antes de que se constate el aumento de casos entre la población.

**El Proyecto VAT-ar (MITECO)**, pone a disposición de la ciudadanía sus resultados en la página web del Ministerio, [www.miteco.gob.es](http://www.miteco.gob.es) (sección Agua).

**El Proyecto URBEHA (URA)** completa el anterior en otras EDAR de la CAPV y vuelca sus resultados en la web de URA, [www.uragentzia.euskadi.eus](http://www.uragentzia.euskadi.eus).

### ¿QUIERES HACER ALGUNA SUGERENCIA O MOSTRAR TU OPINIÓN?

Puedes hacerlo a través del correo electrónico: [info@amvisa-futura.org](mailto:info@amvisa-futura.org)

*Recuerda ¡Pásate a la factura electrónica y reducirás el consumo de papel!*

